





## 82 Musika Hamabostaldia Quincena Musical

Donostia  
San Sebastián  
Abuztua 1-27  
Agosto 2021

### Grigory Sokolov

Leningraden jaio zen 1950ean. Moskuko Tchaikovsky Nazioarteko Lehiaketan saritu zutenetik igaro diren 45 urteetan musikaren maitaleen artean estatus ia mistikoa erdietsi du, entzule guztiak bereganatuz bere errepertorioarekin eta musikaltasunarekin. Bere jotzeko moduak ez du aurreko maisuen eraginik, bere estiloa eta hurbilketa erabat pertsonalak eta bakarrak baitira. Sokolov-ek interpretatzen duen edozerk erabat berria dirudi. Europa osoko kontzertu areto eta festibal entzutetsuenetako ohiko gonbidatua da, eta munduko zuzendari ospetsuenetako askorekin lan egin du. Nabarmentzekoa da ondoko orkestrekin lan egin izana: New Yorkeko Orkestra Filarmonikoa, Montrealeko Sinfonikoa, Municheko Filarmonikoa, Leipzigecko Gewandhaus, Philharmonia Orkestra eta Amsterdameko Concertgebouw.

Bi hamarkada grabatu gabe igaro ondoren, Sokolovek kontratu eksklusiboa sinatu zuen Deutsche Grammophon zigiluarekin. Grabazio guztiak zuzenean egindakoak dira: lehen CDak 2008ko Salzburgoko jaialdian eskaini zuen errezitala jasotzen du, Mozart eta Chopin konpositoreen obrekin. Bigarren albuma Schubert eta Beethoveni eskaini zien, eta hirugarrenak Mozarten Pianorako kontzertua KV488 eta Rachmaninov-en 3. piano kontzertua dakartza. CD hori Nadja Zhdanova-ren "A Conversation That Never Was" DVDarekin batera argitaratu zen. Bere azken lana Beethoven eta Brahmsen musika biltzen dituen CD bikoitza da, Turingo Lingottoan grabatutako DVDarekin batera.

Nace en 1950 en Leningrado. En los 45 años que han transcurrido desde que fuera premiado en el Concurso Internacional Tchaikovsky de Moscú, se ha forjado un status casi místico entre los amantes de la música, cautivando a todos los públicos con su repertorio y su musicalidad. Su forma de tocar no tiene influencias de maestros anteriores, pues su estilo y aproximación son puramente personales y únicos. Cualquier cosa que Sokolov interpreta suena completamente nuevo. Es un invitado habitual de las más prestigiosas salas de concierto y festivales de toda Europa, y ha trabajado con muchos de los más destacados directores del mundo. Entre las orquestas con las que ha trabajado destacan la Filarmónica de Nueva York, Sinfónica de Montreal, Filarmónica de Munich, Gewandhaus de Leipzig, Orquesta Philharmonia y Concertgebouw de Ámsterdam.

Después de estar dos décadas sin grabar, Sokolov firmó un contrato en exclusiva con Deutsche Grammophon. Grabados todos en directo, el primer CD incluía el recital ofrecido en el Festival de Salzburgo en 2008 con obras de Mozart y Chopin. El segundo fue un álbum dedicado a Schubert y Beethoven, y el tercero incluía el concierto para piano KV 488 de Mozart y el nº3 de Rachmaninov. Este CD fue publicado junto al DVD "A Conversation That Never Was" de Nadja Zhdanova. Su último trabajo incluye un doble CD con música de Beethoven y Brahms, junto a un DVD grabado en el Lingotto de Turín.